



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Debegesa

Debarreneko Garapen
Ekonomikorako Elkartea

Sociedad para el Desarrollo
Económico de Debarrena

IMMIGRAZIO EKINTZA PLANA

DEBABARRENEKO ATZERRIKO ETORKINEN KULTURA ARTEKOTASUNAREN ETA GIZARTERATZEAREN INGURUKO ESKUALDE MAILAKO EKINTZA PLANA

2010eko urtarrila

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
1.1. TESTUINGURUA	2
1.2. JUSTIFIKAZIOA.....	4
2. DEBABARRENEKO ETA UDALERRIETAKO DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA. 6	6
2.1. ERROLDA OROKORRA.....	6
2.2. BILAKAERA.....	7
2.3. JATORRIKO HERRIALDEEN ARABERAKO BANAKETA	7
2.4. SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA	8
2.5. ADINAREN ARABERAKO BANAKETA.....	8
2.6. UDALERRIAREN ARABERAKO DATURIK AIPAGARRIENAK.....	9
3. LANERAKO METODOLOGIA	19
4. JARDUTEKO KONTZEPTUAK ETA PRINTZIPIOAK.....	21
5. PLANAREN HELBURUA	24
5.1. HELBURUA.....	24
5.2. EREMU GEOGRAFIKOA	26
5.3. INPLIKATUTAKO ERAGILEAK	26
6. JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOAK.....	29
7. EKINTZEN FITXAK PROGRAMAREN ARABERA.....	31
8. ERANSKINA: EKINTZAREN FITXAREN AZALPENA	83
9. ERANSKINA: BESTE EKINTZA POSIBLE BATZUK	85

1. SARRERA

1.1. TESTUINGURUA

Debarreneko eskualdeak 180,3 Km²-ko hedadura du, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko ipar-mendebaldean kokatzen da; eskualde horretan honako herri hauek aurkitzen dira: Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku, Soraluze eta Deba, baina Bizkaiko Ermua eta Mallabia udalerrak ere hartzen ditu, nahiz eta fisikoki Bizkaiatik bereiztuta egon zonako orografia konplexua medio. Bi lurralde historikoen arteko kokapen horrek nolabait zaildu egiten du eskualde hori osatzen duten herrien arteko koordinazioa. Debarrenak mendebaldean Bizkaiko Markina - Ondarroa eta Durangaldea eskualdeekin egiten du muga; ekialdean, berriz, Gipuzkoako Urola-Kostarekin; hegoaldean Debagoienarekin eta iparraldean Kantauri itsasoan amaitzen da.



Debabarrena eskualdean biztanleria izugarri gehitu zen 1950 eta 1970 urteen artean, batik bat izandako immigrazioaren ondorioz, Espainiako beste autonomia erkidegoetatik iritsitako pertsonak kokatu baitziren zonalde honetan. Migrazio horiek egungo biztanleria eratu dute, bereziki udalerrri handietan, gainerakoetan eragina izan badu ere.

Poliki-poliki migrazio prozesu horiek desagertu egin ziren, eta pixkanaka biztanleria gutxitu egin zen. Hala eta guztiz ere, azken hamarkadan, Debabarrena eskualdea, inguruko gainerako eskualde eta udalerrien antzera, biztanle hartzaile bihurtu da, atzerriko pertsona ugari etorri baita bertara; ondorioz, eskualdeko etorkinen tipologia aldatu egin da. Beste behin, bizi-kalitatea hobetu nahiak pertsonak euren jatorria uztera daramatza; migrazio-prozesu berri honen ezaugarri garrantzitsuena estatuz kanpoko jatorria da. Modu horretan, biztanle horiek udalerriko bizimodu sozialera gehitu dira, bertako kaleetara, dendetara, ikastetxeetara eta topaketa-espazioetara.

Ikuspegiren (Immigrazioaren Euskal Behatokia) 2007ko datuen arabera, atzerriko jatorria duten 2.502 pertsona bizi dira Debabarrenean, eta kopuru hori etengabe gehitzen ari da, migrazio-fluxuak oraindik gertatzen ari baitira. Horrekin guztiarekin erronka berriak eta inpaktu sozial, demografiko, kultural, ekonomiko... berriak sortu dira. Herri Administrazioak gainerako herritarren parametro eta baldintza beretan artatzen ditu iristen diren pertsonen eskaerak eta premiak. Hain zuzen ere, Udalak dira hiritarrengandik gertuen dauden instituzioak, eta, lehendabizi, haiek erantzun behar die errealitate berri horiei, tokiko esku-hartzearen bidez. Dena den, atzerriko immigrazioaren fenomenoak eskualdean nabarmendu arte, ez zen inolako biderik proposatu errealitate berrira eta biztanleria horren premia eta erronka berrietara egokitzeko.

1.2. JUSTIFIKAZIOA

Ildo horretan, eskualdean, Eibarren eta Ermuan eman ziren lehen urratsak, herri horietan bizi baita atzeritar jatorriko biztanleriaren %60, eta orain eskualdeko gainerako udalerrietan jorratzen ari diren antzeko prozesuak garatu zituzten. Horrela, herri bakoitzeko egoera zein den ikusteko analisia eta immigrazioaren errealitatearen gaineko diagnostikoa egin zituzten. Ondoren, Tokiko Immigrazio Plana garatu zuten, eta udal bakoitzak immigrazio teknikari kargurako pertsona bat kontratatu zuen. Eibarren badute dagoeneko Immigrazio Lehen Plana (2005-2007), eta egun bigarren Plana jorratzen ari dira. Ermuan ere badute Immigrazio Plana (2005-2007); gaur egun, gainera, luzatu egin dute plan hori.

Gainerako udalerrietan beranduago hasi ziren lanean; 2007an, DEBEGESA Debabarreneko garapen agentziak eskatuta, atzerriko etorkinen profilari buruzko analisia egin zen Deba, Elgoibar, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Sorluzen. Hori dela-eta, aurrerantzean Planaren eskualdeko esku-hartzea aipatzen denean, 6 herri horiei dagokiena izango da.

Diagnostikoaren beharra prozesu zabalago baten barruan kokatzen da, eta, honen emaitzaren ondorioz, atzerriko etorkinen kultura artekotasunaren eta gizarteratzearen eskualde mailako lehen Ekintza Plana sortuko da, gai horretan udal eta eskualde mailako jarduerak koordinatze aldera; eta, horretarako, etorkinekin lan egiteko printzipioak, oinarriak eta irizpideak bateratuko dira. Gainera, atzerriko immigrazioa fenomeno berria izanik eskualdean, uste da garai egokia dela kudeaketa konplexuko etorkizuneko egoerei aurre hartzeko.



Gai honi dagokionez, Plan honetan oinarrituko da eskualdeko Udalen politika; beti ere Herri Administrazioaren beraren eskumenak kontuan izango dira.

Plana izango da Herri Administrazioak migrazio-fenomenoari erantzuna emateko orientazioa eta bidea eskainiko duen tresna; etorkinak zein bertakoak kontuan izango dira. Horretarako, gai honetan eskualdeko udalerrietan garatzen ari diren edo garatuko diren jarduerak, programak eta zerbitzuak antolatu eta aintzat hartuko ditu, eta, bereziki, kontuan izango dira jarduera-eremu horretan Herri Administrazioak egingo dituen programa, zerbitzu eta ekintzak; dena den, ez da alde batera utziko herri mailatik zein pertsona etorkinen bidez sortutako ekimenekiko izango duen lankidetzeta.

Aurrez adierazi bezala, lehendabizi egoeraren inguruko diagnostikoa egin zen 2008. urtean. Diagnostiko horretako datu esanguratsuenak jarraian erakutsiko dizkizuegu, abiatzeko egoera zein den ikustearren, plangintzaren fase honi hasiera ematerakoan.

2. DEBABARRENEKO ETA UDALERRIETAKO DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA

Atal honetan aurkeztuko dira eskualdeko udalerrri bakoitzaren diagnostikoa egiterakoan jasotako datuak. Lan horretarako, Elgoibar, Deba, Mutriku, Soraluze, Mallabia eta Mendaro udalerrietan erroldatutako atzerritar biztanleen datuak aztertu ziren. Erreferentzia-data moduan 2008ko urtarrilaren 1a hartu da. Gainera, datuak osatzeko asmoarekin, elkarrizketak egin zitzaizkien Gizarte Ongizate sailtako zein ikastetxeetako arduradunei; hau da, errealitate horrekin harreman gehien duten bi eremuetakoei.

Atzerriko immigrazio gisa ulertzen da Espainiako nazionalitatea ez duen pertsona multzoa, egoitza udalerrri hauetakoren batean duena; egoitza moduan hartzeko, berriz, erroldatuta egotea eskatzen da.

Informazio-iturri gisa Biztanleen Udal Errolda erabili da.

2.1. ERROLDA OROKORRA

Debabarrenean, Eibar eta Ermua alde batera lagata, 2008ko urtarrilaren 1ean¹ 28.313 biztanle daude erroldatuta eta horietatik 1.266 etorkinak dira; beraz, horrek esan nahi du eskualdeko biztanleen %4,47 atzerritarra dela.

Eskualdea osatzen duten udalerrien analisiaren arabera, udalerrri handiagoetan udalerrri txikiagoetan baino etorkin gehiago dago.

Bestalde, biztanle-kopuruaren proportzioaren arabera, lehendabizi Elgoibar aurkitzen da (%4,90) eta, ondoren, Soraluze (%4,66), Mutriku (%4,6) eta Mendaro (%4,5), ia antzeko portzentajeekin.

¹ Eibarren, 2008ko urtarrilean, atzerritar jatorriko 1.415 pertsona daude (%5,13). Ermuari dagokionez, daturik berrienak *Ikuspegitik* ateratakoak dira; hots, 2007ko urtarrilaren 1ekoak, eta 606 atzerritar agertzen dira (%3,7).

2.2. BILAKAERA

Azken 8 urteetako etorkin kopuruaren bilakaerak joera positiboa erakusten du eskualdean zein eskualdea osatzen duten udalerrri guztietan, etorkinen kopurua gehitzen joan baita. Zehazki, gehien Mutrikun, Soraluzen eta Mendaron gehitu dira; izan ere, atzerriko etorkinen kopurua sei aldiz biderkatu da. Bereziki, Elgoibarren gehitu dira, 2000-2008 denboraldian kopurua 9 aldiz biderkatu baita. Jakina, datu esanguratsua da, Eibar eta Ermua bezalako udalerrietan, hots, egun eskualdeko etorkinen kopuru garrantzitsua dutenetan, etorkinak beste udalerrietan baino gehiago gehituko zirela pentsa baikenezakeen. Baina, Eibar eta Ermuan etorkinen kopurua gehitu bada ere, igoera udalerrri txikienetan nabaritu da gehien; izan ere, udalerrrian atzerriko etorkinik erroldatu gabe egotetik, etorkinak hartzen dituzten udalerrri garrantzitsu bihurtu dira.

2.3. JATORRIKO HERRIALDEEN ARABERAKO BANAKETA

Eskualdean dibertsitate handia nabari da nazionalitate ezberdineko pertsonen dagokienez, izan ere, 58 herrialdeetako etorkinek osatzen baitute etorkinen kolektiboa.

Etorkinen kopuruari dagokionean, nazionalitate garrantzitsuenak aztertzen baditugu, lehen postuan marokoarrak daude; hau da, eskualdeko etorkin guztien %24,3. Ildo horretan, aipatu behar da jatorri horretakoak nagusitzen direla besteen gainetik Eibarren, Elgoibarren, Ermuan, Soraluzen eta Mallabian, atzerriko lau pertsonetatik ia bat nazionalitate horretakoa baita.

Bigarren lekuan, eskualdeko etorkinen arteko jatorriko herrialde nagusia Portugal da. Baina talde hori marokoarrak baino askoz ere txikiagoa da; izan ere, bi talde horien arteko aldea ia 12 puntu portzentajezkoa da, marokoarren alde. Horrek esan nahi du marokoarrak lehen postuan aurkitzen direla, gainerako nazionalitateen gainetik.

Halaber, azpimarratu behar da latinoamerikar herrialdeetako nazionalitatea duten pertsonen presentzia.

2.4. SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA

Gizonezkoen eta emakumezkoen kopurua egun nahiko berdina da eskualdean; hau da, gizonezkoak %53 eta emakumezkoak %47. Dena den, udalerrika aztertzen badugu, nahiz eta gizonen eta emakumeen portzentajeak nahiko berdinak izan, salbuespenak aurki ditzakegu; esate baterako, Mallabian, Deban eta Mutrikun. Lehen bi kasuetan, aldea emakumezkoen aldekoa da; izan ere, Mallabian etorkinen %62,3 emakumezkoak dira eta %37,5 gizonezkoak; Deban, berriz, %57 emakumezkoak eta %43 gizonezkoak. Alderik handiena Mutrikun aurki dezakegu, %67 gizonezkoak baitira eta %33 emakumezkoak.

2.5. ADINAREN ARABERAKO BANAKETA


Ilido horretan, ikus dezakegu etorkin gehienak pertsona gazteak direla. Horrela, biztanleria osoaren eta etorkin taldearen arteko alderik esanguratsuen 60 urtetik gorako pertsonak osatzen dute; izan ere, egun, eskualdean, etorkin oso gutxik dituzte 60 urte baino gehiago.

2.6. UDALERRIAREN ARABERAKO DATURIK AIPAGARRIENAK

Orain arte eskualdeko datu nabarmenenak aurkeztu baditugu ere, jarraian udalerrri bakoitzeko datu aipagarrien berri ematen ahaleginduko gara labur-labur.

Ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan, atzerriko jatorriko etorkin gutxien duen udalerrria Mallabia da; Elgoibar, aldiz, gehien dituena, kopuru bikoitzarekin.

Jatorri atzerriarrekoko etorkinen portzentajea udalerrriaren arabera




Iturria: Diagnostikoa. Geuk egina. 2008ko urtarrileko udal-datuak (Udal-errolda).

Deba:

Debako etorkinen kopurua asko hazi da azken bost urteetan; batez ere, Latinoamerikako, Ekialdeko Europako eta Marokoko pertsonak etorri dira. Nazionalitate horiek erritmo oso bizian ari dira hazten. 2002. urtean, ekialdeko herrialdeetako eta Marokoko etorkinen immigrazioa etorkinen %1,7koa zen ozta-ozta Deban; egun, aldiz, %13,7 eta %7,41ekoa da, hurrenez hurren.

Jatorri atzerritarreko etorkinen portzentajea



Iturria: Diagnostikoa. Geuk egina.

Estatuko, erkidegoko eta lurralde historikoko 2007ko urtarrileko datuak (EIN). 2008ko urtarrileko udal-datuak (Udal-errola).

Etorkinen kopuruaren igoerak ondorio handia izan du hezkuntza-arloan. Ikasleak lehendabiziko aldiz iritsi dira herriko Bigarren Hezkuntzako Institutura. Era berean, gero eta etorkin gehiago matrikulatu dira Helduentzako Hezkuntzako ikastaro ezberdinetan.

Bestalde, etxebizitza eskuratzea arazo oso larria da gaur egun Debara iritsitako etorkinentzat. Haien behin-behineko etxebizitza-azpiegitura ondorengo hauek baldintzatzen dute: etxebizitzaren prezioa osoa altua izateak, alokairuan emateko etxebizitza gutxi izateak, jabe batzuek euren etxebizitzak etorkinei errentan eman nahi ez izateak, iritsi berriek zailtasun ekonomikoak izateak eta haien egoera juridikoak.

Etorkinen artean badira eredu tradizionaletik urruntzen diren familia-ereduak, gure gizartean oraindik ere ez ohikoak diren familia-egiturak. Familia desegituratu asko daude, guraso bakarreko familiak, senar-emazte mistoak...


Etorkinek ez dute harreman sozialik izaten aisialdirako jardueren inguruan, haien denbora librean gehienak soilik senideekin, herritarrekin, etxebizitzako edo laneko lagunekin erlazionatzen baitira, denak ere etorkinak. Hiriko kultura eta aisiarako eskaintzan gutxi hartzen dute parte, batez ere arrazoi ekonomikoak medio eta denbora libre gutxi izateagatik, baina horrek badu zeikusia kultura ohitura eta interes ezberdinak izatearekin ere.

Debako etorkin taldearekin lotutako eragile ezberdinen artean koordinaziorik ez dagoela nabari da. Erakunde gehienek duten informazioa ez da osoa, eta haien jarduera-eremuko errealitatea ezagutzen dute soilik. Erakunde publiko, ikastetxe, gobernuz kanpoko erakunde, elkarte eta abarren arteko komunikazioa eta lankidetzara oso tarteka egiten da, premia espezifikoei, jarduteko plan orokor bati erantzun gabe.

Elgoibar:

Elgoibarren, 2008ko otsailaren 1ean, Udaleko udal-errolan, guztira 542 etorkin daude erroldatuta.

Jatorri atzerritarreko etorkinen portzentajea



Iturria: Diagnostikoa. Geuk egina.

Estatuko, erkidegoko eta lurralde historikoko 2007ko urtarrileko datuak (EIN). 2008ko urtarrileko udal-datuak (Udal-errola).

Etorkinen %86 baino zertxobait gehiago Elgoibarko hirigunean bizi da eta ia %14 hiri-inguruko auzoetan. Gainera, aipatu behar da Elgoibarren dauden etorkinen ia %40 hiriguneko bi kaletan banatzen dela.

Bilakaerari dagokionez, Elgoibarren 9,5 aldiz biderkatu da etorkinen kopurua azken zazpi urteotan. Ildo horretan, Latinoamerikako eta Marokoko etorkinen kopurua ikusgarri hazi da. Estatu mailan Boliviakoak soilik %4,4a osatzen dute eta erkidego mailan %9,7a; Elgoibarren, aldiz, jatorriko herrialderik ugariena da, etorkinen %25,4 hangoak baitira. Gainera, Portugaldik datozenak etorkinen soilik %2,2 dira estatuan, %7,5 autonomia mailan, %11,9 probintzian eta, are portzentaje handiagoa, %17,1, herri mailan.

Egun, emakumezkoak nagusitzen dira (%54) gizonezkoen (%46) gainetik. Boliviako eta Brasilgo gehienak emakumezkoak dira; aldiz, Pakistán, Portugal eta Marokoko gehienak gizonezkoak, herriko etorkinen artean.

Udalerriko aztertutako etorkinen artean %46,8k lehen mailako ikasketak ditu soilik. Ikasketarik gabekoen %77,7 emakumezkoak dira eta oinarritzko ikasketak dituztenen %56,7 ere bai. Halaber, goi-mailako ikasketak dituzten atzerritarren artean emakumezkoak dira nagusi; hain zuzen ere, %56,3.

Bigarren hezkuntza eta goi-mailako ikasketak egin dituzten etorkinen artean, gehienak Boliviakoak eta Kolonbiakoak dira, alde handiarekin.


Hezkuntza-arloari dagokionez, egun, guztira, 152 ikasle etorkin daude Elgoibarren matrikulatuta. Etorkin horien erdia baino gehiago (%57,2) derrigorrezko hezkuntzako zikloak egiten ari da: haur hezkuntza (%17,7); lehen hezkuntza (%26,3) eta DBH (%13,2).

Boliviakoak dira Elgoibarko ikasgeletan ordezkari handiena dutenak; hau da, herriko ikasle etorkin guztien %24,3. Ondoren, Maroko aurkitzen da, baina portzentaje txikiagoarekin (%17,1).

Mallabia:

Mallabian aurkitzen diren etorkin helduen kasu gehienetan, Mallabia ez da izan Euskal Herrian izan duten lehen herria. Hala ere, udalerrian finkatu diren etorkinek ziur aski familia bildu nahiko dute, eta hori Mallabira etorkinak etortzeko bide garrantzitsu bilakatuko da.

Jatorri atzerritarreko etorkinen portzentajea



Iturria: Diagnostikoa. Geuk egina.

Estatuko, erkidegoko eta lurralde historikoko 2007ko urtarrileko datuak (EIN). 2008ko urtarrileko udal-datuak (Udal-errolda).

Etxebizitza eskuratzea arazoa da gaur egun Mallabira iritsitako etorkinentzat. Haien behin-behineko etxebizitza-azpiegitura izugarri mugatzen dute etxebizitzaren prezioa altua izateak, errentan emateko etxebizitza gutxi izateak, iritsi berriek zailtasun ekonomikoak izateak eta haien egoera juridikoak.


Dena den, Mallabiko udalerrian etxebizitza gutxi izateak etorkinak etxebizitza errentan hartzera bultzatzen ditu.

Etorkinek ez dute harreman sozialik izaten aisialdirako jardueren inguruan, haien denbora librean gehienak soilik senideekin, herritarrekin eta laneko lagunekin erlazionatzen baitira, denak ere etorkinak. Gainera, Mallabiri dagokionez, denbora librean dutenean, beste udalerrira batzuetara joan ohi dira etorkinak.

Mendaro:

Mendaroko etorkinen kopurua asko hazi da azken bost urteetan; batez ere, Ekuador, Kolonbia eta Brasilgo hiritarrak etorri dira. Beraz, Latinoamerikako pertsona asko dira udalerrian.

Jatorri atzerritarreko etorkinen portzentajea



Iturria: Diagnostikoa. Geuk egina.

Estatuko, erkidegoko eta lurralde historikoko 2007ko urtarrileko datuak (EIN). 2008ko urtarrileko udal-datuak (Udal-errola).

Etxebizitza medio joan dira eskualdeko etorkinak Mendarora bizitzera. Ildo horretan, etxebizitzaren alokairu altuak eta dagoen eskaintza mugatuak asko baldintzatzen du etorkinak udalerrri batean edo bestean geratzea. Zehazki, orain arte Mendaroko prezioak beste udalerrietakoak baino arrazoizkoagoak izan dira; beraz, horixe izan da Mendarora joateko arrazoi bat.


Mendaroko etorkin taldearekin lotutako eragile ezberdinen artean koordinaziorik ez dagoela nabari da.

Nahiz eta oraindik udalerriko ikastetxeetan ikasle etorkin asko matrikulatuta ez egon, familia biltzeko adin txikiko eta gazte etorkin gehiago iristearekin eta Mendaron atzerritarrek seme-alabak izatearekin, datozen urteetan ikasle etorkinak gehitu egingo dira.

Mutriku:

Mutrikuko etorkinen kopurua asko hazi da azken bost urteetan; batez ere, Senegal, Bulgaria eta Boliviako hiritarrak etorri dira. Nazionalitate horiek erritmo bizian ari dira hazten.

Jatorri atzerritarreko etorkinen portzentajea



Iturria: Diagnostikoa. Geuk egina.

Estatuko, erkidegoko eta lurralde historikoko 2007ko urtarrileko datuak (EIN). 2008ko urtarrileko udal-datuak (Udal-errola).

Etxebizitza eskuratzea arazoa da gaur egun Mutrikura iritsitako etorkinentzat. Haien behin-behineko etxebizitza-azpiegitura izugarri mugatzen dute etxebizitzaren prezioa altua izateak, errentan emateko etxebizitza gutxi izateak, iritsi berriek zailtasun ekonomikoak izateak eta haien egoera juridikoak.

Dena den, Mutrikuko udalerrian etxebizitza gutxi izateak etorkinak etxebizitza errentan hartzera bultzatzen ditu.


Arrazoi ekonomikoak medio eta hauek ia arrazoi bakarrak izanik, esan daiteke immigrazioa hazten ari dela. Etorkinek lanaldi luzeetan egiten dute lan (aldi baterako itsasoan lan egiten duten pertsonak bereziki) eta udalerriko gainerako biztanleekiko bizikidetasuna ia ez da batere aurreratzen.

Nahiz eta oraindik udalerriko ikastetxeetan ikasle etorkin asko matrikulatuta ez egon, familia biltzeko adin txikiko eta gazte etorkin gehiago iristearekin eta Mutrikun atzerritarrek seme-alabak izatearekin, datozen urteetan ikasle etorkinak gehitu egingo dira.

Soraluze:

Familia batzeko saiakera finkatzen ari da eta bide garrantzitsua izango da etorkinak Soraluzera iristeko. Familia biltzeko geroago eta eskaera gehiago egiten dira azken urteetan, horixe baita bereiztuta dauden eta oraindik familia biltzea lortu ez duten familia-unitateek lortu nahi duten helburua.

Jatorri atzerritarreko etorkinen portzentajea



Iturria: Diagnostikoa. Geuk egina.

Estatuko, erkidegoko eta lurralde historikoko 2007ko urtarrileko datuak (EIN). 2008ko urtarrileko udal-datuak (Udal-errola).

Batzuetan, gurasoak eta seme-alabak biltzearekin batera, 60 urtetik gorako pertsonak, aiton-amonak, etorri ohi dira, etxeko lanak egiteko eta adin txikikoak zaintzeko.

Etorkinen kopuruaren igoerak ondorio handia izan du hezkuntza-arloan. Gaur egun, 71 etorkin daude matrikulatuta udalerriko ikastetxeetan, hauetako %49 lehen hezkuntzan. Familia biltzeko adin txikiko eta gazte etorkin gehiago iristearekin eta Soraluzen atzerritarrek seme-alabak izatearekin, datozen urteetan ikasle etorkinak gehitu egingo dira.

Etxebizitza eskuratzea arazo oso larria da gaur egun Soraluzera iritsitako etorkinentzat. Haien behin-behineko etxebizitza-azpiegitura izugarri mugatzen dute etxebizitzaren prezioa altua izateak, alokairuan emateko etxebizitza gutxi izateak, jabe batzuek euren etxebizitzak etorkinei errentan eman nahi ez izateak, iritsi berriek zailtasun ekonomikoak izateak eta haien egoera juridikoak.

Etorkinek ez dute harreman sozialik izaten aisialdirako jardueren inguruan, haien denbora librean gehienak soilik senideekin, herritarrekin, pisuko edo laneko lagunekin erlazionatzen baitira, denak ere etorkinak.

Herriko kultura eta aisiarako eskaintzan gutxi hartzen dute parte, batez ere arrazoi ekonomikoak medio eta denbora libre gutxi izateagatik, baina horrek badu zerikusia kultura ohitura eta interes ezberdinak izatearekin ere.

Arrazoi ekonomikoak medio eta hauek ia arrazoi bakarrak izanik, esan daiteke immigrazioa hazten ari dela. Etorkinek lanaldi luzeetan egiten dute lan eta udalerriko gainerako biztanleekiko bizikidetasuna ia ez da batere aurreratzen.

Soraluzeko etorkin taldearekin lotutako eragile ezberdinen artean koordinaziorik ez dagoela nabari da.

Gainera, etorkinek immigrazio kontuetan espezializatutako langileak behar dituzte, haien izapideei eta egoera zehatzei ahalik eta modu eraginkor eta azkarrean erantzuna emate aldera.

3. LANERAKO METODOLOGIA

Atzerriko etorkinen kultura artekotasunaren eta gizarteratzearen inguruko eskualde mailako Ekintza Plana egiteko prozesuan aplikatu den metodologian funtsezkoa da inplikaturako pertsonen eta erakundeen parte-hartzea.

EDE Fundazioko eta **Debegesako** kideek osatutako talde bultzatzailea edo motorea eratu zen, plangintza prozesuan orientatzaile lanak egin eta prozesu hori errazteko helburuarekin. Eibarko eta Ermuko Udaletako Immigrazio teknikariek ere parte hartu dute talde horretan.

Hauek dira lanerako prozesuan kontuan hartutako ekintza nagusiak:

- **Tailerrak (talde fokalak)**

Hauen funtzioa izan da Plana garatzeko beharrezko ekarpenak egitea.

Horretarako, lau talde sortu ziren; talde bakoitza talde motoreak ezarritako irizpideen arabera hautatu zen eta 7 eta 17 pertsona arteko taldeak osatu ziren.

- **Gizarte Ongizate Saileko teknikariak**; berdintasun, gazteria eta eroldaren kudeaketako teknikariak, beti ere udalerrri ezberdinetakoak, izan dira talde honetan parte hartzera gonbidatu direnak.
- Udalerrietako **gainerako sailetako teknikariak** -Agenda 21, kirolak, kultura, euskara, merkataritza- eta bi udalerritako (Elgoibar eta Soraluze) Udaltzaingoaren arduradunak.
- **Gizarte eragileak**: Elgoibarko Gaztelekua, Elgoibarko Ludoteka, Elgoibarko Izarra elkarteko Gazte eta Haur saila, Elgoibarko Gazte Informazio Gunea, Taupada Antzerki Taldea, Elgoibar Gazte Asanblada, Mutrikuko Txantxangorri Aisialdi taldea, Eibar-Ermua Gurutze Gorria, Elgoibarko Gurutze Gorria, Elgoibarko Zuhaitz Aisialdi taldea, Asociación Zabaltzen Sartu.
- **Ikastetxe batzuetako ordezkariak, eskualdean lan egiten dutenak**. Elgoibarko Pilar ikastetxea, Elgoibarko Herri Eskola, Mutrikuko San Miguel ikastetxea, Soraluzeako BHI ikastetxea, Elgoibar Ikastola, IMH institutua, Berritzegunea, Elgoibarko institutua, Armeria Eskola.

Bestalde, eskualdean bizi diren etorkinekin lan-talde bat sortzen saiatzen ari ginen. Azkenean, zailtasunak ikusita, elkarrizketa sakonak egitea erabaki zen.

Tailer bakoitza dinamizatzeko, eztabaida-taldearen metodologia jarraitu zen; erdi egituratutako gidioarekin, bizpahiru orduko saioak egin ziren.

Lehen fase horretan, tailerrek kontuan izan zituzten, batez ere, nortasunari, egoeraren diagnostikoari eta helburuak ezartzeari buruzko alderdiak. Bildutako informazioa dokumentu hau egiteko oinarria izan da. Geroago, bigarren saioa egin zen, adostutako helburuak aintzat hartuta jarduteko neurriak erabakitzeko.

- ***Elkarrizketa sakonak***

Elkarrizketa sakonak egin zitzaizkien udalerrri batzuetako etorkinei, lan-taldeetara etortzea oso zaila baitzen. Elkarrizketak ordubetekoak izan ziren, eta, horren bidez, udalerrian eta eskualdean immigrazioa benetan nolakoa den aztertzen ahalegindu ginen; hau da, etorkinek eurek bizi eta jasotzen duten modu berean. Halaber, ikusi genuen abiapuntu gisa geneukan immigrazioaren diagnostikoa zenbateraino eguneratuta zegoen, eta komeni ziren gaiak argitu eta Plan hau bideratzen duten premiak zehaztu ziren.

- ***Helburuak eta ekintzak adosteko dinamika***

Lanerako fase bakoitzaren ondoren, parte-hartzeko dinamika bultzatu zen, helburuak eta ekintzak adoste aldera. Horretarako, fase bakoitza amaitzean, tailerretan parte hartu zuten pertsona guztiei zein interesa izan eta pertsonalki parte hartzerik izan ez zutenei lan egiteko dokumentu-oinarria bidali zaie, helburuen eta ekintzen inguruan adostasunera iritsi ahal izateko.

Era berean, behin-betiko zirriborroa parte hartu duten pertsonekin egiaztatu zen aurkezpen saio batean.

Azkenik, parte hartu duten pertsonen talde bultzatzaileak azkenean adostutako helburuen eta ekintzen berri emango zaie, Plana behin-betiko argitaratu baino lehen.

4. JARDUTEKO KONTZEPTUAK ETA PRINTZIOAK

Immigrazioaren fenomenoak konplexua denez, argi eta garbi definitu behar dira zuzenean lotutako oinarriko kontzeptu batzuk, egindako lan-talde ezberdinetan sortzen joan direnak:

- ✓ **Hiritar inklusiboaren** printzipioaren arabera, etorkinei eta bertako pertsonei onartu behar zaizkie giza eskubideak eta eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta, ondorioz, erabat gizarteratzeari dagozkion betebeharrak.
- ✓ **Gizarteratze** kontzeptuak esan nahi du etorkinak guztiz eta modu askean sartu behar direla harrera gizarlean. Horretarako, politika publikoek ahaleginu eta bermatu behar dute etorkinek modu librean parte hartzeko duten eskubidea eta ez asimilazio-prozesuaren ondorioz. Norabide anitzeko fenomenoak da, eta, etorkinak ez ezik, harrera gizarlean bertako pertsonak ere inplikatzen ditu.
- ✓ **Kultura artekotasuna** ere aipatzen da gizarteratze-prozesuetako funtsezko bide gisa. Ez dira nahitaez identitateak batu behar eta are gutxiago beste kulturak asimilatu hartzen dituen gizarlean. Gizarteratzeko kontzeptu aurreratuaren arabera, identitate ezberdinak modu askean garatu behar dira berdintasunean, guztion artean partekatutako eskubide eta betebeharren eskema kontuan izanda eta denon arteko interakzio eta erlazio prozesu gisa. Kultura artekotasunaren helburua ez da identitate mistoak eraikitzea edo indarrez behartzea bertako identitateetara egitera, identitate konplexuak eta konposatuak sortzea baizik, denen on pertsona guztien nortasuna modu askean garatzearekin uztartu ahal izateko.

Behin definizio terminologiko horiek eginda, Ekintza Plana zuzenduko duten printzipioak agertuko dira jarraian; horretarako, erreferentzia moduan hartu ditugu Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana 2007-09an jasotako printzipio orokorrak eta eraginkorrak.

Hauek dira Planean, oro har, oinarritzat hartuko diren eta Planaren esparru ideologikoa ezartzen duten printzipio orokorrak:

- **Berdintasun-printzipioa:** giza eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien zabaltzea norberaren eskumenen esparruan, eta betebeharren berdintasuna, pertsonen arteko ezberdintasunik ez izateko, nazionalitatea edozein izanda ere. Ez da berdintasun formal hutsa bilatzen, berdintasun materiala baizik. Hori dela-eta, zilegi da egoera ezberdinei aurre egiteko tratu ezberdina ematea, beti ere berdintasun erreala eta eraginkorra izatearren emaitza.
- **Erantzukizun publikoaren printzipioa:** gizarteratzea botere publikoen erantzukizuna dela uste da. Botere publikoen bete-beharra da parte hartzeko espazioak bermatzea, gutxieneko eskubide eta normaltze barruan. Erantzukizun publikotik sortzen dira printzipio eragileak; hau da, jarduteko bideak ordenatzeko eta ezartzeko moduak.
- **Sexu-arraioiak medio ez diskriminatzearen gaineko printzipioa:** emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak aztertu eta erantzuna eman behar zaie. Ezberdintasunak historian zehar beti egon direnez, erabat sustraituta eta barneratuta daude egitura sozial guztietan, eta horiek identifikatzea zaila gertatzen da. Ondorioz, emakume etorkinek diskriminazio-mota bikoitza jasaten dute; hots, emakumea eta etorkina izateagatik. Genero arteko harremanak gizartean eraiki direnez, harreman horietan esku har daiteke, ezberdintasunak zuzentze aldera. Beraz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak Immigrazio Planean adosten diren ekintza-neurrietan genero-ikuspegi egokia sartzea eskatzen du.
- **Parte-hartze printzipioa:** politika publikoak egiterakoan eta kudeatzerakoan pertsona eta talde hartzaileekin adostea esan nahi du. Parte-hartze politikoa eta soziala ezberdindu daitezke. Lehenari dagokionez –parte-hartze politikoa–, asko egiterik ez dute tokiko erakundeek. Bigarrean –parte-hartze soziala–, berriz, etorkinek euren jabetzan parte hartu behar dute, haiek ordezkatzen dituzten taldeen edo harrera-gizarteko sektoreen bidez, gizarteratzea eta bizikidetzatza lortzea bezalako helburu garrantzitsuak betetze aldera. Parte-hartzea espazio aproposa da mugimendu sozialetan artikulatzeko; asoziazionismoa, berriz, funtsezko elementua da etorkinen parte-hartze soziala eraginkorra izan dadin.

Printzipio eragileak Planaren ezarpena gidatzen duten printzipioak dira; hau da, irizpide instrumentalak:

- **Integraltasun eta zeharkakotasun printzipioa:** toki-mailan garatutako jarduerak ez dira soilik sail edo eremu baten eskumenak. Planean lortu nahi diren helburuak medio, jarduteko hainbat eremutan ezartzen dira neurriak, eta, horri esker, Planak izaera integrala hartzen du. Beraz, garapenean, zeharka, udal-erakundeetako sail eta zerbitzu guztiek hartu behar dute parte.
- **Normalizazio-printzipioa:** berdintasunaren eta erantzukizun publikoaren gaineko printzipio orokorrak eratzeko, ahalik eta gehien normalizatu behar dira etorkinen taldea gizarteratzea lortzeko behar diren prestazio eta zerbitzuak. Dena den, normalizazio hori espezializazio-printzipio lagungarriarekin osatu behar da, orokortu ezin daitezkeen premia espezifikotarako, etorkinak gizarteratzeko beharrezko konpentsazioak direnean. Hala ere, espezializazioa normalizazioaren lagungarria izango da beti.
- **Koordinazio eta lankidetzaren printzipioa:** aipatutako zeharkakotasun eta integraltasun printzipioetatik abiatuta, Plana behar bezala ezartzeko, ezinbestekoa da eskualdean immigrazioaren inguruan lan egiten ari diren eragileen arteko koordinazioa eta lankidetzaren, nahiz eta toki, eskualde, lurralde edo Euskal Herri mailan lan egin.

5. PLANAREN HELBURUA

Atzerriko etorkinen kultura artekotasunaren eta gizarteratzearen inguruko eskualde mailako Ekintza Planaren bidez, Debabarreneko eskualdeak helburu hauek lortu nahi ditu:

- Immigrazio-politika adostea, udalak eta inguruko eragileak immigrazioaren fenomenoaren aurrean orientatzeko, bakoitza bere eskumenen barruan.
- Ahal den neurrian, etorkinen harrera eta gizarteratzea hobetzea, etorkinen eta bertakoen arteko kultura arteko bizikidetasuna sustatzen den bitartean.
- Zeharkakotasuna, integralitatea, normalizazioa, koordinazioa eta lankidetzaren printzipio operatibo eta instrumentalak kontuan izatea.
- Era berean, kontuan izatea berdintasuna, erantzukizun publikoa, sexua dela-eta ez diskriminatzea eta parte-hartzea bezalako printzipio orokorrak.

5.1. HELBURUA

Planaren asmoa da **eskualde-mailan immigrazio-politika bateratua adostea**. Immigrazioa fenomeno berria da gure eskualdean, baina oso azkar ari da garrantzia hartzen; beraz, komeni da hasieratik ezartzea tokiko zein eskualdeko eragile publikoen eta pribatuen **jarduera bideratuko duten parametroak eta jarraibideak**, udaleko sailen eta gizarte eragileen erantzukizunak bistartzeko eta antolatzeko.

Eskualde-mailako politika bateratuaz ari gara. Nahiz eta udalerrri bakoitzeko errealitateak bere berezitasunak izan, elkartze puntuak asko dira. Eta komenigarria ikusten da Plana bultzatzen duten **sei udalerrien artean irizpideak batzea**. Ahal den neurrian, Eibar eta Ermuarekin elkartzea ere komenigarria izan daiteke, dagoeneko euren Immigrazio Planak eginda baitituzte, eta horiek erreferentziatzat har daitezke. Bestalde, ildo horretatik jarraituz, esan behar da ez dugula hutsetik abiatu behar; izan ere, Immigrazioari buruzko II. Euskal Planean immigrazioaren inguruan ezarritako euskal politikaren gaineko jarraibideak baditugu; baita EAEko hainbat udalerritan immigrazio-kontuetan onartutako tokiko plan ezberdinak ere.

Plan honetan ezartzen den helburua zera da; etorkinen harrera hobetzea, **gizarteratzea erraztea** eta **kultura arteko bizikidetasun** aberasgarria **sustatzea**.

Plan honetan batez ere azpimarratu nahi da udalerrira iritsi berriak diren etorkinei **harrera egokia** eskaintzeko lan egitea; izan ere, gure ustez, arlo horretako eskumena guztiz da herriarena eta komunitatearena. Atzerritarrei buruzko Legean erroldatzea eskubideak izaten hasteko bidea denez eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek hasierako informazioa eta orientazioa emateko lan egin behar dutenez, udala da iritsi berriak diren etorkinek udalerrira sartzeko duten atea. Beraz, badirudi beharrezkoa dela gutxi gorabehera sistematizatutako harrera-prozesua adostea, etorkin iritsi berriak behar bezala artatu ahal izateko.

Plan honetan azpimarratu eta udalerrri eta komunitatearen eskumenekoa den beste funtsezko alderdia da kultura arteko bizikidetasuna sustatzea. **Kultura arteko gizartea** lortu behar da eta atzerritar biztanleen ezarpena eta asimilazioa saihestu. Gizarte hartzailea izatetik abegikorak izatera pasa behar dugu. Horretarako, aurre egin behar zaie lehendik dauden estereotipo eta aurreiritziei, eta gizarteari informazioa eman, baina batez ere **etorkinek** gure udalerrietan **parte hartzeko bideak** ezarri, jatorriko kulturak hedatzea eta garatzea erraztuaz eta elkartzeko, hitz egiteko, elkar ezagutzeko eta harremanak egiteko espazioak jarriz. Lehenetasun horri garrantzia ematen diogu, lehendik dauden estereotipoak apurtzen lagunduko duten datu objektiboak ezagutzea funtsezkoa bada ere, sinesgarritasunak objektibitateak baino indar handiagoa duela uste dugulako.

Azkenik, Planaren asmoa da, ahal den neurrian, etorkinen gizarteratzea lortzea. Jakina, harrera hobetzeak eta kultura arteko bizikidetasuna sustatzeak **gizarteratze-prozesua** errazten dute, nahiz eta gizarteratzeko premia ezberdinak zehazki artatu behar izan. Guretzat gizarteratze-prozesua **norabide anitzeko** prozesua da, bertakoak zein atzerrikoak tartean aurkitzen baitira. Era berean, **alderdi anitzeko** prozesua litzateke, gizarte-ongizate handiagoa lortzeko aukera ematen duten hainbat sail inplikatzeko direlako, hala nola, enplegua, etxebizitza, hezkuntza edo osasuna. Planak helburuak ezarriko ditu gizarteratzea errazte aldera, baina **helburu** hori **administrazioko beste maila batzuekin partekatzen denez**, toki administrazioaren eta inguruan lan egiten duten eragileen egitekoa mugatua da.

Immigrazioaren inguruan egiten den lehen plana izanik, lortzeko moduko helburuak ezarriko dira; alegia, immigrazioaren inguruan **behar bezala esku hartzeko oinarriak finkatuko dira**; horretarako, administrazioa, gizarte eragile, hiritar eta bereziki etorkinen arteko erantzunkidetasuna bermatuko da. Ekintza batzuk garatzen hasiak dira.

5.2. EREMU GEOGRAFIKOA

Planaren eremu geografikoa **Debabarreneko eskualde** osoa izango da; hau da, Eibar eta Ermua barne, nahiz eta praktikan jarduera-mota ezberdinak egin behar izan eremu geografiko ezberdinetan.

Plan honen barruan hiru **jarduera-mota** garatu ahal izango dira:

- **Soilik herri-mailako** jarduerak: udalerrri batean edo hainbat udalerritan garatuko diren jarduera zehatzak dira, komunitate-izaerakoak izateagatik edo beste udalerrietara extrapola ezin daitezkeen premiei erantzuteagatik.
- **Eskualde-mailako** jarduerak: eskualde osoa zuzendutako jarduerak dira, bereziki komunitate-izaerarik ez dutenak; beraz, edozein udalerritan gara daitezke (jarduera-motaren arabera, hainbat udalerritan edo guztietan garatu ahal izango dira), aurrez ezarritako irizpideak kontuan hartuta (txandakakoa, espazioak egokitzea...).
- **Eskualde osoari zuzendutako** jarduerak, Eibar eta Ermua barne: Plana bultzatu duten udalerriek garatutako jarduerak izango dira, baina Ermuan eta Eibarren ere eragina izan eta garatzeko modukoak, betiere udalerrri horiek nahi izanez gero.

5.3. INPLIKATUTAKO ERAGILEAK

Immigrazio fenomenoaren alderdi anitzeko izaera eta integralitate eta zeharkakotasun printzipioak kontuan hartuta, Planak, burutu ahal izateko, udalerrri guztietako **sail gehienak eta udal-zerbitzuak inplikatzea** eskatzen du.

Plana diseinatzeko nahiz gauzatzeko eta ebaluatzeko, funtsezkoa da **udaletan** immigrazio fenomenoarekin lotutako jarduera-eremuak dituzten **sail eta zerbitzuen** inplikazioa lortzea: Hezkuntza, Gazteria, Kultura, Kirola, Hirigintza, Garapenerako Lankidetzak, Gizarte Ekintza, Aukera-berdintasuna eta Euskara.

Plan honen esparruan, immigrazio-politika behar bezala garatzeko, ordezkari bat behar da (immigrazio teknikaria kontratatzea edo immigrazio kontuetarako beste kudeaketa mota bat). Horrela, langile horrek funtzio nagusi hauek izango ditu:

- Udal ezberdinei eta udaleko sail ezberdinei laguntzea **proposamenak eta neurriak planifikatzen, diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen**, Planean jasotako helburu eta xedeen arabera.
- Zeharkakotasun-printzipioa sustatzea, **udaleko sail ezberdinak** inplikatu **eta konprometituz**, jarduera ezberdinetan kultura artekotasuna kontuan izateko, etorkinak berdintasunean baliabide eta udal-zerbitzuetara normaltasunez sartzea lortze aldera.
- Immigrazioaren inguruan edo etorkinen interes guneetan esku hartzen duten beste profesionalen eta/edo erakunde publiko edo pribatuen ekintzak koordinatzea eta gainbegiratzea.

Udalerriak txikiak direnez –Elgoibar izan ezik, ertaintzat har baitaiteke–, komeni da **immigrazio-kontuetan lan egiteko langilea udalerrri guztien artean** kontratatzea; hau da, sei udalerrietan lan egiteko.

Ildo horretan, kontuan izan behar da immigrazioan espezializatutako teknikaria badutela **Eibarren eta Ermuan. Aukera bezala hartu beharko litzateke, modu koordinatuan eta eraginkortasun handiagoz lan egiteko.**

Plan honetan, udalerrri-mailako jarduerak eta eskualde osoan aplikatu beharrekoak jasotzen dira; horrela, Eibar eta Ermuari 6 herriekin bat egiteko gonbita luzatzen zaie, sinergiak ezartzeko eta efikazia eta eraginkortasun irizpideekin baliabideak erabiltzeko asmoz.

Bestalde, komeni da Plana **diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko**, eskualdean lan egiten duten **gizarte eragileen inplikazioa** lortzea. I. Ekintza Plana izanik, ahalegindu gara, udalerrri-mailan nahiz eskualde-mailan, ibilbide ezberdinetan, atzerritarrekin nolabait lan egin duten eragileak identifikatzen. Eragile horiek, plan honetan **eragile kolaboratzaile** moduan parte hartzeaz gain, **erantzukizunak hartuko dituzten** eragile moduan lan egingo dute. Plan honetan, dagoeneko egindako jarduerak ez ezik, prozesu honetan sor daitezkeenak eta onartzea komenigarri eta beharrezko direnak ere jasoko dira.

Debarrena eskualdeak **erakunde eta gizarte mugimenduen** inguruko sare garrantzitsua du. Horietako batzuek dagoeneko egin dituzte atzerritarrei zuzendutako jarduerak eta beste batzuek, ildo horretan jarduerak egin ez badituzte ere, egiteko interesa agertu dute. Erakunde eta gizarte mugimendu hauen ibilbide, egiten jakite, pertsonetikiko gertutasun eta eskualdeko bizitzan duten inplikazioari esker, funtsezkoak dira Plana egiteko prozesuan nahiz planaren ezarpenean, jarraipenean eta ebaluazioan.

Gainera, kontuan izan dugu **ikastetxe** batzuetan garatzen ari diren **lana**; hau da, ikasle etorkinei laguntza eskaintzeko proiektuak.

Azkenik, aipatu behar da **etorkinen elkarterik** ez dagoela Plan honen jarduereremuko udalerrietan, etorkinek eskualdeko erakundeetan –Eibarren– eta Lurralde Historikokoetan parte hartzen badute ere. Gainera, Plana diseinatzerakoan, hainbat komunitatek elkarre bat sortzeko interesa agertu dute; beraz, baliteke epe laburertainera egoera aldatzea.

6. JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOAK

Ezarritako xedeak abiapuntutzat hartuta, ondorengo helburu orokor eta espezifikoak identifikatu dira, **harrera, gizarteratzea eta kultura arteko bizikidetzaren inguruko ildo estrategikoak**. Era berean, barneko ildo estrategikoa ezarri da, immigrazioaren barne-antolakuntza eta koordinazio sisteman oinarrituta:

1. ILDO ESTRATEGIKOA: HARRERA
Inplikaturako eragile publiko eta pribatu guztien artean adostuta eta denen arteko koordinazioarekin, Harrera Plana egitea eskualdeko udalerrietara iritsi berriak diren etorkinentzat.
Helburu espezifikoak
<ul style="list-style-type: none">• Inguruan dauden baliabideen ganean behar bezalako hasierako informazioa ziurtatzea.• Eskatzen duten etorkinei adieraztea zeintzuk diren egin beharreko ibilbideak eta zein erabili beharreko zerbitzu eta prestazioak, euren premietara gehien egokitzen direnak.• Harrera udalerrietako kultura, hizkuntza, gizarte, geografia eta abarren errealitatera hasierako gertutasuna erraztea.• Etorkinei, maizterrei eta azpierreentariei informazioa ematea errola izapidetzearen eta ondorioen inguruan.

2. ILDO ESTRATEGIKOA: GIZARTERATZEA
Lan-munduratzeko eta gizarteratzea erraztea, lehendik dauden baliabideak etorkinen beharretara egokituz edo baliabide espezifikoak lagungarri gisa ezarriz.
Helburu espezifikoak
<ul style="list-style-type: none">• Lehendik dauden zerbitzuak eta prestazioak egokitzea, etorkinen ezaugarrien arabera.• Arrisku edo kanporatze egoeran aurkitzen diren etorkinei arreta berezia eskaintzea.• Etorkinen lan-munduratzeko erraztea.• Etorkinek etxebizitza gainerako biztanleen baldintza-berdintasunean izan dezaten ahalegintzea.• Eskola-mailan, etorkinen gizarteratzea hobetzea.• Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea etorkinen artean.

3. ILDO ESTRATEGIKOA: KULTURA ARTEKO BIZIKIDETZA

Kultura arteko bizikidetza aberasgarria sustatzea eskualdean bizi diren etorkinen eta bertakoen artean; eta etorkinak gure gizarterako kulturaren guztiz eta modu askean sartzeko aurrera egitea.

Helburu espezifikoak

- Etorkinek udalerriko bizitzan parte hartzea bultzatzea.
- Etorkinen asoziazionismoa sortzea eta indartzea bultzatzea, bereziki emakume etorkinen asoziazionismoa.
- Kultura ezberdinak hurbiltzea eta haien arteko topaketak egitea sustatzea.
- Biztanleriari immigrazioaren inguruko informazioa ematea.

4. ILDO ESTRATEGIKOA: BARNE-ANTOLAKUNTZA

Udalen banakako eta baterako funtzionamendu-dinamikak eta immigrazio-kontuetako antolakuntza-egitura egokitzea.

Helburu espezifikoak

- Eskualdean immigrazioan oinarritutako ordezkaritza bat jartzea, eredurik egokiena zein den aztertu eta gero.
- Profesionalei prestakuntza eskaintzea immigrazioak haien zereginetan dituen inplikazioen inguruan.
- Sailen arteko, erakundeen arteko eta immigrazio-arloko beste gizarte eragileen arteko koordinazio eta lankidetzak sistemak argitzea eta egituratzea.
- Immigrazio-arloko informazioa eguneratzen dela ziurtatzea.

7. EKINTZEN FITXAK PROGRAMAREN ARABERA

PROGRAMA: "HARRERA"

AZALPENA

Plan honetan batez ere azpimarratu nahi da udalerrira iritsi berriak diren etorkinei harrera egokia eskaintzeko lan egitea.

Izan ere, gure ustez, arlo horretako eskumena guztiz da herrikoa eta komunitatekoa. Atzerritarrei buruzko Legean erroldatzea eskubideak izaten hasteko bidea denez eta oinarritzko gizarte-zerbitzuek hasierako informazioa eta orientazioa emateko lan egin behar dutenez, udala da iritsi berriak diren etorkinek udalerrira sartzeko duten atea.

Beraz, badirudi beharrezkoa dela gutxi gorabehera sistematizatutako harrera-prozesua adostea, etorkin iritsi berriak behar bezala artatu ahal izateko.

HELBURUA(K) ETA NORI DAGOEN ZUZENDUTA

OROKORRA

- Inplikaturako eragile publiko eta pribatu guztien artean adostuta eta denen arteko koordinazioarekin, Harrera Plana egitea eskualdeko udalerrietara iritsi berriak diren etorkinentzat.

ESPEZIFIKOAK

- 1.1. Helburua. Inguruan dauden baliabideen gainean behar bezalako hasierako informazioa ziurtatzea.
- 1.2. Helburua. Eskatzen duten etorkinei adieraztea zeintzuk diren egin beharreko ibilbideak eta zein erabili beharreko zerbitzu eta prestazioak, euren premietara gehien egokitzen direnak.
- 1.3. Helburua. Harrera-udalerrietako kultura, hizkuntza, gizarte, geografia eta abarren errealitatera hasierako gertutasuna erraztea.
- 1.4. Helburua. Etorkinei, maizterrei eta azpierrentariei informazioa ematea errolda izapidetzearen eta ondorioen inguruan.

2009 / 2012. EKINTZA PLANA

1.1 Helburua

1. Baliabideen gida bat prestatzea, baliabide horiek udal mailakoak edota eskualdekoak diren adieraziz.
2. Etorkinen itzulpen-beharrizanak aseko dituen programa bat abian jartzearen inguruko balorazioa egitea.
3. Inguruko baliabideetara bisita gidatuak egitea.
4. Taldekako saio eta topaketak egitea.

1.2 Helburua

5. Harrera-protokolo bat prestatu eta garatzea, profesionalen jarduerak nahiz eskura dauden jarduerak bideratu ahal izateko.
6. Udalerrira etorri berri diren etorkinei hasierako elkarrizketa egitea, bakoitzaren araberako orientazioa eman ahal izateko.

1.3 Helburua

7. Euskararekiko lehenengo gerturatzea izateko ikastaro-eskaintza (Aisa Programa).
8. Gehien erabiltzen diren esamoldeak jasotzen dituen hiztegitxoia izatea, hizkuntza nagusietara itzulita.

1.4 Helburua

9. Erroldatzeari eta etxebizitzari dagokionez irizpideak eta jarduteko moduak bateratzeko balioko duen lantalde bat eratzea eta, egoki ikusiz gero, gai horren inguruko udal-araudi bat prestatzea.

1. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Baliabideen gida bat prestatzea, baliabide horiek udal mailakoak edota eskualdekoak diren adieraziz.

Azalpena

Baliabideen gida horren bidez, etorkinei ematen zaien informazioa eskura izan nahi da, hala udalerrikoa, nola eskualdekoa.

Gida hori paperean egin ahalko bada ere, lehenetsuna emango zaio formatu digitalari, udaletako web orrialde desberdinetatik eskura egon dadin. Edizio digitalak abantaila ugari eskaintzen ditu. Izan ere, ekonomikoagoa izateaz gain, etengabe egunean mantendu, eta informazio-kopuru handiagoa gorde ahalko da bertan.

Datuei dagokienez, esan beharra dago gida honek informazio-mota desberdina izango duela; alde batetik, udalerrri bakoitzari buruzkoa eta, bestetik, eskualdeko informazioa, hau da, udalerrri guztientzat baliagarria dena.

Helburua(k)

1.1, 1.2, 1.3 eta 1.4.

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba
 Mendaro

Elgoibar
 Mutriku

Mallabia
 Sorluze

Arduraduna(k)

Immigrazio arloa

Laguntzailea(k)

Udaleko beste arlo eta sailak/Gizarte eragileak/Bestelako errekurtsu eta zerbitzuak

Lehentasuna: Handia

Burutzeko epea: 2010

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontua: Ez-ohiko kostua

Adierazleak

Egindako gida

Bertan jaso dugun baliabide-kopurua

2. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Etorkinen itzulpen-beharrizanak aseko dituen programa bat abian jartzearen inguruko balorazioa egitea.

Azalpena

Hizkuntza ez jakitea da etorkinek aurkitzen duten lehenengo oztopo handia. Horregatik, hain zuzen ere, oso egoki ikusten da baliabideren bat eskura izatea, informazioa modu egokian transmititzen dela bermatzeko.

Hala ere, mota horretako zerbitzu edota baliabide bat abian jartzeko nahitaezkoa da zenbait gogoeta egitea, egoera oso konplexua baita: zein kasu edota egoeretan aplikatu behar den, ekonomikoki duen kostua eta bideragarritasuna, zerbitzuaren zein alor litzatekeen udalaren erantzukizunaren pekoa, nola antolatu daitekeen itzulpen-zerbitzu bat, etab. Une honetan, gainera, Eusko Jaurlaritzak zenbait esperientzia sustatzeari ekin dio, Eudelekin elkarlanean; zentzu horretan, garrantzitsua litzateke horri buruzko jarraipen bat egitea. Ekintza honen bidez, beraz, zerbitzua bera abian jartzea baloratu besterik ez da egin nahi, hau da, horren guztiaren inguruko analisi eta azterketa egitea, aurrera begira erabakiak modu errazagoan hartu ahal izateko.

Helburua(k)

1.1, 1.2 eta 2.1

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Immigrazio arloa

Laguntzailea(k)

Udaleko beste arlo eta sailak/Gizarte eragileak

Lehentasuna: Txikia

Burutzeko epea: 2011

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontuak: Kosturik gabekoa

Adierazleak

Egindako gogoeta

3. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Inguruko baliabideetara bisita gidatuak egitea.

Azalpena

Gure lurraldera iristen diren etorkinek, normalean, inguruneko baliabideei buruzko ezagutza nahiko murrizta izaten dute; gehintan, premiazko beharrianak baino ez dituzte ezagutzen. Honako ekintza honen bidez, aipatu baliabideak ezagutzeko aukera eman nahi zaie etorkinei, bai eta baliabide horien erabilpena sustatu arazi ere. Baliabide horiek dira: osasun-zentroak, ikastetxeak, gazteentzako kirol eta kultura ekipamenduak, heziketa zentroak, oinarritzko gizarte zerbitzuak, aisialdirako eremuak...

Ekintza hori hainbat modutara gauzatu ahal izango denez, unean uneko aukerarik onena zein den baloratu beharko da. Zehaztu beharko da ea baliabideetako arduradunak eurak diren bisita gidatuak egingo dituztenak, edota baliabide edota zerbitzu bakarra den bisita gidatuen dinamizazioa zentralizatzeaz arduratuko dena.

Helburua(k)

1.1 eta 1.3

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Immigrazio arloa

Laguntzailea(k)

Interesezko errekurtso eta zerbitzuak / Gizarte eragileak / Sare informalak

Lehentasuna: Ertaina

Burutzeko epea: 2010

Aldizkakotasuna: Periodikoa (Sei hilabetero)

Aurrekontuak: Ez-ohiko kostua

Adierazleak

Egindako bisita kopurua

Bisitaren parte hartu dutenen kopurua

4. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Taldekatu saio eta topaketak egitea.

Azalpena

Etorkinez osatutako taldeekin saioak eginda, etorri berriak diren pertsonentzako topaguneak bilatu nahi dira; bertan, tokiko informazioa lortu eta zalantza nahiz beharizan nagusiak ase ahal izango dituzte, informazioari dagokionez. Saio horietan, errealitate berri batekin harremanetan jartzen sortzen dituen oinarritzko aldeak landu, eta harrera-unerako dauden baliabide eta ekintzak aurkeztuko dituzte: Baliabideen gida, bisita gidatuak, hiztegiak...

Saio eta topaketa horiek denboran zehar mantentzeak, harrera egin dien gizartea hobeto ulertzea ekarriko du; era berean, integrazio-prozesuentzako kontraste nahiz jarraipenerako eremua lortuko litzateke. Topaketa horiek, gainera, jatorri anitzeko pertsona horien artean nolabaiteko sareak sortzeko balioko du, bizitzan oso antzekoak diren prozesuak bizi dituzte eta.

Helburua(k)

1.1, 1.2 eta 1.3.

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Immigrazio arloa

Laguntzailea(k)

Gizarte Eragileak / Sare informalak

Lehentasuna: Ertaina

Burutzeko epea: 2010

Aldizkakotasuna: Ohikoa

Aurrekontua: Ez-ohiko kostua

Adierazleak

Egindako saio kopurua

Egindako saioetan parte-hartzaileen kopurua

5. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Harrera-protokolo bat prestatu eta garatzea, profesionalen jarduerak nahiz eskura dauden jarduerak bideratu ahal izateko.

Azalpena

Etorkinekin kontaktuan egoten diren profesionalak aurkitzen duten zailtasun nagusienetako bat da, beharrian bakoitzari dagokion baliabidea izendatzeko orduan aukerarik onena zein den erabakitzeko ezagutza-falta. Sarritan, izan ere, bikoiztasunak gertatzen dira, garapenik eza, ibilbide desegokiak edota bestelako arazoak. Horien jatorria, eskura dagoen baliabide-sarea ez ezagutzea da, baliabide bakoitzaren egitekoa zein den ez jakitea, alegia.

Horregatik, ekintza honi esker, eragile nahiz baliabide bakoitzaren egitekoak eta zereginak zeintzuk diren argitzeko balioko duen protokolo bat eduki daiteke. Horrez gain, ibilbideak identifikatu eta sistematizatzeko prozesu bat ere lortuko da, harrera nahiz integrazio eraginkor eta efizienteagoa lortuz.

Helburua(k)

1.2, 1.3, 2.1 eta 4.3

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Immigrazio arloa

Laguntzailea(k)

Udal arlo eta sail guztiak / Beste harrera sistema publikoak / Heldu / Biltzen / Gizarte Eragileak

Lehentasuna: Handia

Burutzeko epea: 2011

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontua: Kosturik gabekoa

Adierazleak

Harrera-protokoloa eginda eta zabaldua

6. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Udalerrira etorri berri diren etorkinei hasierako elkarrizketa egitea, bakoitzaren araberako orientazioa eman ahal izateko.

Azalpena

Ekintza honen bidez, udalerrira etorri berri diren etorkinekin hasierako topaketa bat egin nahi da, pertsonalizatua eta borondatezkoa; modu horretara pertsona edota familia-nukleo bakoitzaren benetako beharrianak zeintzuk diren jakin ahal izango da. Epe labur eta ertainera duten migrazio-proiektuari buruzko informazioa jasoko da, neurriko arreta eta orientazioa eman ahal izateko.

Helburua(k)

1.1 eta 1.2

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Immigrazio arloa / Ongizate arloa

Laguntzailea(k)

Errola

Lehentasuna: Ertaina

Burutzeko epea: 2010

Aldizkakotasuna: Ohikoa

Aurrekontua: Kosturik gabekoa

Adierazleak

Elkarrizketa egin zaien etorkin iritsi berrien kopurua (%)

7. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Euskararekiko lehenengo gerturatzea izateko ikastaro-eskaintza (AISA Programa).

Azalpena

Debabarrena eskualdea eremu euskalduna da, biztanle gutxiko udalerriei dagokienez batez ere. Hori horrela, zenbat eta euskara gehiago jakin, etorkinen integrazioa eta elkarbizitza hobetu egingo da.

Euskararen hastapen-ikastaroak zuzenduta daude euskararekin kontakturik inoiz izan ez duten 16 urtetik gorakoei. Etorkinek euskara ikasteko lehen urratsak ematea eta, apurka-apurka, euskal kulturaren ezaugarri eta elementuak ezagutzea da helburua.

Ikastaro horietan oinarrizko elementuak lantzen dira: agurrak, zenbakiak, familia, eskola, garraioa, osasuna, kirola... Lantzen diren ariketak, aipatu gai horiei buruzko hiztegiari dagozkio gehienbat, euskara ulertzera bideratutakoak alegia, modu oinarrizkoan bada ere (kaleko errotuluak, kartelak, trafiko-seinaleak...).

Helburua(k)

1.3 eta 2.6

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Euskara arloa

Laguntzailea(k)

Immigrazio arloa

Lehentasuna: Handia

Burutzeko epea: 2009

Aldizkakotasuna: Periodikoa (urtero)

Aurrekontua: Ez-ohiko kostua

Adierazleak

Ikastaro horietan parte hartzen duen etorkin-kopurua

Lortutako emaitzak

Euskara ikasten jarraitzen duen pertsona-kopurua (%)

8. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Gehien erabiltzen diren esamoldeak jasotzen dituen hiztegitxoia izatea, hizkuntza nagusietara itzulita.

Azalpena

Ekintza honen helburua da gehien erabiltzen diren hizkuntzetara itzuliko den hiztegi txiki bat egitea; bertan, kalean erabiltzen diren esamolde ohikoenak jasoko dira, hala euskaraz, nola gazteleraz. Etorrinek errealitate kultural eta linguistiko berri batean murgiltzeko duten beharrianari aurre egin nahi zaio; hizkuntza arloko beharrian hori, hala ere, bestelako programa eta baliabideen bidez osatu beharko da.

Helburua(k)

1.3, 2.1, 2.6 eta 3.3

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Mendaro

Elgoibar

Mutriku

Mallabia

Soraluze

Arduraduna(k)

Immigrazio arloa / Errolda

Laguntzailea(k)

Euskera arloa

Lehentasuna: Txikia

Burutzeko epea: 2012

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontua: Ez-ohiko kostua

Adierazleak

Egindako hiztegia

Jasotzen duen hitz/adiera kopurua

Hizkuntza-kopurua

9. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Erroldatzeari eta etxebizitzari dagokionez irizpideak eta jarduteko moduak bateratzeko balioko duen lan-talde bat eratzea eta, egoki ikusiz gero, gai horren inguruko udal-araudi prestatzea.

Azalpena

Erroldatze eta Etxebizitzaren gai horri dagokionez, udalen artean jarduteko modu bat baino gehiago dago. Beraz, udal bakoitzaren prozedura eta baldintzak gainerako udalekin partekatzea lortu nahi da; horrela, erroldatzeak egiterakoan, egoki ikusiz gero, elkarren artean adostutako irizpide eta ereduak aplikatuko lirateke.

Helburua(k)

1.4, 2.1 eta 2.4

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba
 Mendaro

Elgoibar
 Mutriku

Mallabia
 Soraluze

Arduraduna(k)

Immigrazio arloa

Laguntzailea(k)

Etxebizitza arloa/Errolda/Udaltzaingoa/Gizarte Eragileak

Lehentasuna: Ertaina

Burutzeko epea: 2010

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontua: Kosturik gabekoa

Adierazleak

Lan-taldea osatuta
Jasotako emaitzak

PROGRAMA: GIZARTERATZEA

AZALPENA

Planak, ahal den neurrian, etorkinen integrazioa ahalbideratu nahi du. Jakina denez, harrera-unea hobetzearen eta kultura arteko elkarbizitza sustatzearen bidez asko hobetzen da **integrazio-prozesua**; hala ere, nahitaezkoa da etorkinek ingurunean aurki ditzaketen beharrizan jakin batzuei erantzuna ematea, hau da, harrera programa baino haratago doazen beharrizanak asetzea.

Integrazio-prozesu hori, gure ustez, **norabide anitzeko prozesua** da, talde berean sartzen dituelako bai bertoko pertsonak, bai kanpotik etorritakoak; **dimentsio anitzeko prozesua** ere bada, gizarteko ongizatea lortzeko helburu horretan asko direlako parte hartzen duten arloak: enplegua, etxebizitza, hezkuntza edota osasuna.

Integrazioa hobetzera bideratutako helburuak finkatuko ditu planak; kontuan eduki behar da, baina, **administrazioko beste maila batzuek ere helburu bera** dutela eta, beraz, toki mailako administrazioaren nahiz horren inguruan jarduten duten eragileen egitekoa oso mugatua dela.

HELBURUA(K) ETA NORI DAGOEN ZUZENDUTA

OROKORRA

- Lan-munduratzeta eta gizarteratzea erraztea, lehendik dauden baliabideak etorkinen beharretara egokituz edo baliabide espezifikoak lagungarri gisa ezarriz.

ESPEZIFIKOAK

- 2.1. Helburua. Lehendik dauden zerbitzuak eta prestazioak egokitzea, etorkinen ezaugarrien arabera.
- 2.2. Helburua. Arrisku edo kanporatze egoeran aurkitzen diren etorkinei arreta berezia eskaintzea.
- 2.3. Helburua. Etorkinen lan-munduratzeta erraztea.

- 2.4. Helburua. Etorkinek etxebizitza gainerako biztanleen baldintza-berdintasunean izan dezaten ahalegintzea.
- 2.5. Helburua. Eskola-mailan, etorkinen gizarteratzea hobetzea.
- 2.6. Helburua. Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea etorkinen artean.

2009 / 2012. EKINTZA PLANA

2.1. Helburua

10. Etorkinek zerbitzu nahiz prestazioen inguruan egiten duten erabilpenaren eta, batez ere, ez-erabilpenaren analisia, egon daitezkeen oztopoak detektatze aldera.
11. Herritarrei orokorrean bidaltzen zaien informazioa etorkinei ere heltzen zaien ala ez aztertzea, eta hala ez denean, dagozkion neurri zuzentzaileak hartzea.

2.2. Helburua

12. Etorkinei orientazio juridiko eta sozial egokia bermatzea, Heldu Zerbitzuaren bidez.
13. Egoera administratibo irregularra duten pertsonen arreta berezi eta pertsonalizatua ematea.
14. Beharrian egoeretan premiazko ostatuari dagokionez emandako erantzuna baloratzea, eta aukerak aztertzea.
15. Etorkinen beharrian eta ezaugarriak kontuan hartzea, Auzolan programa martxan jartzeari dagokionez.

2.3. Helburua

16. Etorkinen beharrian espezifikoetara egokitutako laneko prestakuntza eta jarraikako prestakuntzaren eskaintza, laneratzeari begira emaitza egokia lortzeko aurre-baldintzak bermatuz.
17. Laneko bitartekaritza eskaintzea etorkinen eta inguruko eragile enplegu-emaitzen artean.

2.4. Helburua

18. Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskabide-tramiteak egiteko laguntza ematea.
19. Etxebizitza publikoko programei buruzko informazioa.

2.5. Helburua

20. Adinez txikikoak diren etorkinei ikastetxeetan harrera egiteko protokolo bat prestatzea, modu koordinatuan.
21. Zailtasun handiagoak dituzten ikasleentzako hezkuntza-indargarriko eremuak sustatzea.
22. Ikastetxeetan harrera uneko orientatzaile gisa jardun dezaketen pertsonak identifikatzea.
23. Ikastetxeen artean sarean lan bateratua gauzatzea, kultura arteko planteamenduetatik abiatuta interesgarriak diren material didaktikoak prestatzeko.
24. Etorkinen familiek Guraso Elkarteetan parte hartzen ez duten artean, horiei zuzendutako komunikazio-bideak proposatzea.
25. Ikastetxeetan kultura arteko hezkuntza-programak garatzea.

2.6. Helburua

26. Adin nagusikoentzako euskara ikastaroak eskaintzea (oinarrizkoak eta maila aurreratuagokoak), bakoitzaren beharizanen arabera.
27. Adin nagusikoen artean euskararen ikaskuntza sustatzea, euskara ezagutu eta erabiltzearen inguruko alde positiboak azpimarratuz.

10. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Etorkinek zerbitzu nahiz prestazioen inguruan egiten duten erabilpenaren eta, batez ere, ez-erabilpenaren analisia, egon daitezkeen oztopoak detektatze aldera.

Azalpena

Etorkin bakoitzak bizi duen egoera bereziak, modu esanguratsuan baldintzatzen du baliabide zehatz batzuen inguruko ezagutza nahiz erabilpen maila. Beharrian jakin batzuei (lana, etxebizitza...) ematen zaien lehentasunak edota etorkinek beraiek dituzten zenbait ohiturek, alde nabarmena sortu dezakete baliabide bataren edota bestearen arteko erabilpen-mailan.

Testuinguru horretan, eskura dauden baliabideak aztertu beharra dago, etorkinek baliabide jakin batzuk zergatik erabiltzen ez dituzten jakin ahal izateko. Saihestu nahi dena zera da: eskaintzaren beraren ezaugarriek oztoporen bat jartzea harrera egiteko unean (ordutegiak, kultura edota erlijio ohituretara behar bezala ez egokitzea...)

Helburua(k)

2.1 eta 3.1

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Immigrazio arloa

Laguntzailea(k)

Udal arlo eta sail guztiak / Arreta ematen duten beste sistema publikoak / Gizarte Eragileak

Lehentasuna: Ertaina

Burutzeko epea: 2011

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontua: Ohiko kostua

Adierazleak

Aztertutako errekurtsio kopurua
Ondorioak

11. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Herritarrei orokorrean bidaltzen zaien informazioa etorkinei ere heltzen zaien ala ez aztertzea, eta hala ez denean, dagozkion neurri zuzentzaileak hartzea.

Azalpena

Komunikaziorako erabiltzen diren bideak desberdinak izan ohi dira kolektiboaren arabera. Herritarrek informazioa behar bezala jasotzen dutela bermatu behar du Administrazioak. Horregatik, hain zuzen ere, pertsonen orokorrean (etorkinak izan zein ez) heltzen zaien informazioa aztertu nahi da ekintza honen bidez, beharrezkoa izanez gero transmisiorako tresna egokiak ezarri ahal izateko.

Helburua(k)

2.1 eta 3.1

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Mendaro

Elgoibar

Mutriku

Mallabia

Soraluze

Arduraduna(k)

Immigrazio arloa

Laguntzailea(k)

Udal arlo eta sail guztiak / Arreta ematen duten beste sistema publikoak / Gizarte Eragileak

Lehentasuna: Ertaina

Burutzeko epea: 2011

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontua: Kosturik gabekoa

Adierazleak

Egindako azterketa

Hartu diren neurri zuzentzaileak

12. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Etorkinei orientazio juridiko eta sozial egokia bermatzea, Heldu Zerbitzuaren bidez.

Azalpena

Etorkinei arlo juridikoan eman beharreko orientazioa edota laguntza da, zalantzarik gabe, garrantzia gehien duen beharrianetako bat. Gaur egun, eskualdeko udalek lankidetzeta-hitzarmen bat dute sinatuta Heldu Zerbitzuarekin (EAEko Atzerritar Etorkinen Arreta Juridiko eta Sozialeko Sarea).

Helburua(k)

2.2

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Gizarte Zerbitzuko arloa

Laguntzailea(k)

Heldu

Lehentasuna: Handia

Burutzeko epea: 2010

Aldizkakotasuna: Ohikoa

Aurrekontua: Kosturik gabekoa

Adierazleak

Hitzartutako zerbitzua

Arreta emandako pertsona-kopurua

13. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Egoera administratibo irregularra duten pertsonen arreta berezi eta pertsonalizatua ematea.

Azalpena

Administrazio egoera irregularrean dauden pertsonen kolektibo ahulena osatzen dute, etorkin atzerritarren artean. Horien egoera konplexua da, eta udalaren eskumenak labur geratzen dira; horregatik, nolabaiteko espezializazioa eta ezagutza behar da, toki mailatik ahalik eta erantzunik onena emateko. Pertsona horien egoerak, beraz, esku-hartze espezializatua behar du, etxebizitza edo/eta lana ez izateak edota erroldatuta ez egoteak dakartzaten mugek eragindako ondorio negatiboak leuntzeko beharrian desberdinen aurrean.

Helburua(k)

2.2

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Gizarte Zerbitzuak

Laguntzailea(k)

Caritas / Gurutze Gorria / Gizarte Eragileak

Lehentasuna: Handia

Burutzeko epea: 2010

Aldizkakotasuna: Ohikoa

Aurrekontua: Ez-ohiko kostua

Adierazleak

Administrazio egoera irregularrean egonik arreta eman zaien pertsona-kopurua

Abian jarritako ekintzak

14. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Beharrizan egoeretan premiazko ostatuari dagokionez emandako erantzuna baloratzea, eta aukerak aztertzea.

Azalpena

Bazterketa edota egoera hauskorrean dauden (etorkinak izan zein ez) oinarrizko beharrizanen artean, ostatu-beharrizana da, zalantzarik gabe, aipagarrienetarikoa; batez ere, bat-bateko premiazko egoeren ondorioz sortutakoa.

Jakina da laneko esparru hori oso konplexua dela, eta ekonomikoki oso garestia. Hori horrela, praktikan jartzeko aukera bat baino gehiago daude. Horregatik, Planak indarrean dirauen artean beharrizan horri aurre egiteko zerbitzuak martxan jartzeari buruzko bideragarritasuna baloratzea pentsatu da. Horretarako, orain artekoak bezalako azterketak egiten jarraituko da, egungo testuingurua garatu ahal izateko.

Helburua(k)

2.2 eta 2.4

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Gizarte Zerbitzuko arloa / Etxebizitza arloa

Laguntzailea(k)

Gizarte Eragileak

Lehentasuna: Ertaina

Burutzeko epea: 2011

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontua: Ez-ohiko kostua

Adierazleak

Egindako gogoeta

Ondorioak eta proposamenak

15. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Etorkinen beharrian eta ezaugarriak kontuan hartzea, Auzolan programa martxan jartzeari dagokionez.

Azalpena

Auzolan programaren helburua da arrisku edota bazterketa egoeran dauden pertsonen laneratzea sustatzea. Etorkinen kolektiboa oso hauskorra da zentzu horretan; gainera, laneratze hori zailago bilakatzen duten bestelako faktoreak ere aipatu behar dira. Hori dela eta, nahitaezkoa da talde horrek berezkoak dituen ezaugarriak kontuan hartzea, programaren baitan dauden ekintza desberdinak gauzatu ahal izateko. Oztopoak saihestea da helburua, etorkinen laneratzea eragozten duten irizpideak ezarriz, eta programan parte hartzen duten etorkinekin ahalik eta emaitza positiboena lortzeko oinarriak finkatuz.

Helburua(k)

2.1, 2.2 eta 2.3

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Gizarte Zerbitzuko arloa

Laguntzailea(k)

Lan arloa / Immigrazio arloa

Lehentasuna: Txikia

Burutzeko epea: 2011

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontua: Kosturik gabekoa

Adierazleak

Auzolan programak barne hartutako etorkin-kopurua

Parte hartzaile guztien arteko portzentajea (%)

16. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Etorkinen beharrizan espezifikoetara egokitutako laneko prestakuntza eta jarraikako prestakuntzaren eskaintza, laneratzeari begira emaitza egokia lortzekoa aurre-baldintzak bermatuz.

Azalpena

Tokiko pertsonen eta etorkinek beharrizan desberdinak izan ditzakete, bai eta denboraren erabilgarritasun desberdina ere. Horregatik, hain zuzen ere, nahitaezkoa da, ahal den neurrian behintzat, talde horren lanbide prestakuntza nahiz jarraikako prestakuntza egokitzea. Beraz, etorkinei prestakuntzarako egiten zaien eskaintza ez da gainerako herritarrei egiten zaien bezalakoa izan behar; kontuan izan behar dira erabiltzaile desberdinen aniztasunetara egin beharreko egokitzapen guztiak.

Helburua(k)

1.2, 2.1 eta 2.3

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Sorluze

Arduraduna(k)

IMH / Armeria Eskola / Lan arloa / Zer ikasi

Laguntzailea(k)

Immigrazio arloa / Gizarte Eragileak

Lehentasuna: Handia

Burutzeko epea: 2009

Aldizkakotasuna: Periodikoa (urtero)

Aurrekontua: Ohiko kostua

Adierazleak

Etorkinentzako egokituta eskaini den ikastaro-kopurua

Parte hartu duen etorkin-kopurua

Etorkin kopurua, guztizkoaren gainean (%)

17. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Laneko bitartekaritza eskaintzea etorkinen eta inguruko eragile enplegu-emaileen artean.

Azalpena

Enplegua ematen duten eragileen artean, sarri askotan, beharrezkoa da aurretik egon daitezkeen aurreiritziak ezabatzea, zenbait jokabide modu zuzenean interpretatzea, etorkinek dituzten jokabide kulturalak ezagutzea edota beste alde batzuk jorratzea. Zenbait etorkinek, bestalde, ez dituzte bertako jardun jakin batzuk ezagutzen, enpleguari dagokionez. Horregatik, beharrezkoa denean, laneko bitartekaritza egokitzea pentsatu da, etorkinen beraien beharrian eta ezaugarriak kontuan hartu dituzten eremu normalizatuetatik abiatuta.

Helburua(k)

1.2, 2.3 eta 2.4

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

IMH / Gurutze Gorria / Sartu / Kutxa Zeharo / Lanbide / Zer ikasi

Laguntzailea(k)

Lan arloa / Immigrazio arloa / Gizarte Eragileak

Lehentasuna: Ertaina

Burutzeko epea: 2010

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontua: Kosturik gabekoa

Adierazleak

Ezarritako bitartekaritza zerbitzua

Erantzuna eman zaien etorkin-kopurua

18. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskabide-tramiteak egiteko laguntza ematea.

Azalpena

Administrazioak eskaintzen dituen programez baliatu ahal izateko, dokumentazio ugari eskatu behar izaten da. Batzuetan, gainera, tramite horiek Eusko Jaurlaritzaren ordezkari-tzetan egoten dira zentralizatuta eta, ondorioz, zailtasunak areagotu baino ez dira egiten. Hizkuntza eta administrazioaren funtzionamendua ezagutzen ez duten etorkinek zailtasunak izaten dituzte; zailtasun horiek, baina, saihesteko modukoak dira, laguntza indibidualaren bidez eta aholkularitzaren bidez.

Helburua(k)

1.2, 2.1 eta 2.4

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Etxebizitza arloa

Laguntzailea(k)

Gizarte Zerbitzuak arloa

Lehentasuna: Txikia

Burutzeko epea: 2012

Aldizkakotasuna: Ohikoa

Aurrekontua: Ez-ohiko kostua

Adierazleak

Laguntza jaso duen pertsona-kopurua

19. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Etxebizitza publikoko programa desberdinei buruzko informazioa.

Azalpena

Etxebizitza da, pertsona ororentzat, beharrian nagusienetako bat, hala etorkinentzat, nola bertokoentzat; hori horrela, etxebizitza publikoa da beharrian hori asetzeko bide nagusia. Etorkinen kasuan baliteke etxebizitzaren politika publikoari buruzko informazio falta egotea, arrazoi ugari dela medio: horren inguruko programa bat baino gehiago dagoelako, hizkuntza ezagutzen ez dutelako, bertakoen eta kanpokoaren artean komunikatzeko bide desberdinak erabiltzen direlako, etab...; horregatik, beharrezkoa da mota honetako informazio nahiz hedapen ekintzak abian jartzea, etorkinen egoerara egokituta, betiere.

Beraz, etxebizitza publikoei buruzko informazioa toki mailatik ere eman beharko litzateke (harrera-ekintzak, oinarritzko udal zerbitzuak...), edota, bestela, orokorrean eskualdeko herritarrei zuzenduriko informazioa hedatzeko ekintzen bidez.

Helburua(k)

1.2 eta 2.4

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Etxebizitza arloa

Laguntzailea(k)

Gizarte Zerbitzuak arloa / Gizarte Eragileak

Lehentasuna: Txikia

Burutzeko epea: 2012

Aldizkakotasuna: Ohikoa (informazioa) / Aldian aldikoa (zabalkuntza)

Aurrekontua: Ez-ohiko kostua

Adierazleak

Burututako informazio-ekintza kopurua

Informazioa jaso duen pertsona-kopurua

20. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Adinez txikikoak diren etorkinei ikastetxeetan harrera egiteko protokolo bat prestatzea, modu koordinatuan.

Azalpena

Ikastetxeek badituzte adinez txikiak diren etorkinei harrera egiteko protokoloak. Zentro bakoitzak bere protokoloa egiten badu ere, badira eskualde mailan komunak diren zenbait beharizan; horregatik, ikastetxeen artean koordinatzeko gomendioa ematen da, jarduteko modua elkarrekin partekatze eta, ahal den neurrian behintzat, irizpide bateratu eta sistematizatuak ezartzeko.

Helburua(k)

2.1 eta 2.5

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Berritzegune / Ikastetxeak

Laguntzailea(k)

Immigrazio arloa / Hezkuntza arloa

Lehentasuna: Ertaina

Burutzeko epea: 2010

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontua: Kosturik gabekoa

Adierazleak

Izandako koordinazio-bilera kopurua

Parte hartu duten ikastetxe-kopurua

Egindako protokoloa

21. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Zailtasun handiagoak dituzten ikasleentzako hezkuntza-indargarriko eremuak sustatzea.

Azalpena

Badira ikasleei arreta berezia emateko kontuan izan beharreko zenbait faktore: migrazio prozesuak dirauen artean haurrek bizi izan ohi duten dolua, hizkuntza ofizial bat edo biak ez ezagutzea, haur etorkinek benetako adinaren eta adin hori legokeen prestakuntza mailaren artean izan ohi den desoreka... Arreta espezializatuarekin, beraz, asko murriztu daiteke hezkuntza horien bien arteko aldea.

Zenbait haur etorkinek izan ditzaketen beharrian horiek, sarritan, hezkuntza eremu formala gainditzen dute eta, beraz, bestelako esparruetan landu behar dira, aisialdian esaterako. Esparru horretan, izan ere, erabilera berezko eta naturalagoa izateaz gain, ezagutza modu automatiko eta errazagoan barneratzen da.

Helburua(k)

2.5 eta 2.6

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Hezkuntza arloa / Euskara arloa

Laguntzailea(k)

Ikastetxeak / Gizarte Eragileak

Lehentasuna: Handia

Burutzeko epea: 2009

Aldizkakotasuna: Ohikoa

Aurrekontua: Ez-ohiko kostua

Adierazleak

Hezkuntza nahiz hizkuntza arloa indartzeko abian jarritako ekimenak

Ekintza horietan parte hartu duten ikasle etorkinen kopurua

Etorkin kopurua, guztizkoaren gainean (%)

22. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Ikastetxeetan harrera uneko orientatzaile gisa jardun dezaketen pertsonak identifikatzea.

Azalpena

Ikasle etorkinak ikastetxera etortzen direnean martxan jartzen den protokoloaren baitan, normalean, banakako laguntza eskaintzen zaie, hezkuntza-sisteman dagokien lekuan kokatu ahal izateko. Beste neurri batzuen artean, oso positiboki baloratzen da zentro edota ikastetxe barnean orientatzaile gisa jardun dezaketen pertsonak identifikatzea; horren bidez, bai ikasleek bai horien familiek banakako orientazioa nahiz laguntza eskuratu ahal izango dute.

Helburua(k)

2.5

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Soraluze

Arduraduna(k)

Ikastetxeak

Laguntzailea(k)

Berritzegune / Immigrazio arloa

Lehentasuna: Ertaina

Burutzeko epea: 2010

Aldizkakotasuna: Noizean behingoa

Aurrekontua: Kosturik gabekoa

Adierazleak

Identifikatutako orientatzaile-kopurua

Orientatzaileak identifikatu dituzten ikastetxe-kopurua

23. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Ikastetxeen artean sarean lan bateratua gauzatzea, kultura arteko planteamenduetatik abiatuta interesgarriak diren material didaktikoak prestatzeko.

Azalpena

Ikastetxeek aurre egin beharreko zailtasunetariko bat da kultura arteko planteamenduak barne hartzen dituzten material didaktikoak aurkitzea. Ikastetxe bakoitzak bere edukiak prestatu nahiz erabiltzen dituzenez, ekintza honek lortu nahi duena da ikastetxeen arteko koordinazioa eta baterako lana sustatzea, elkarri laguntza eman eta alferrikako bikoiztasunak saihesteko.

Helburua(k)

2.5

Ekintza mota

Tokikoa Eskualdekoa Eskualdekoa (Eibar eta Ermua barne)

Herriak

Deba

Elgoibar

Mallabia

Mendaro

Mutriku

Sorluze

Arduraduna(k)

Ikastetxeak / Berritzegune

Laguntzailea(k)

Immigrazio arloa

Lehentasuna: Ertaina

Burutzeko epea: 2011

Aldizkakotasuna: Periodikoa

Aurrekontua: Ohiko kostua

Adierazleak

Izandako koordinazio-bilera kopurua

Koordinazio horietan parte hartu duen ikastetxe-kopurua

24. EKINTZAREN FITXA

Ekintzaren izena

Etorkinen familiek Guraso Elkarteetan parte hartzen ez duten artean, horiei zuzendutako komunikazio-bideak proposatzea.

Azalpena

